

KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONESTEA

1993ko urriaren 8an OARSOALDEA, S.A.ko (aurrerantzean, AGENTZIA) Administrazio Kontseiluak kontratazio-organo honen alde emandako ahalordean ageri diren ahalmenekin bat eta sektore publikoaren kontratuei buruzko 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 2014ko otsailaren 26ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako lege-antolamenduan iraultzen dituenak, (aurrerantzean, SPKL) 117. artikuluan xedatutakoaren babesean,

EBAZPENA

Lehenengoa.- "LEZO EKO-PARKE INDUSTRIALA" proiektua gara dadin laguntza teknikoaren zerbitzua kontratatzeko 1-2018. OHIKO PROZEDURA IREKIAREN (OPI) espedientea onartzen da. Aipatu espedientean hurrengo agiriak daude:

- a) Administrazio-baldintza berezien plegua eta horri dagokion azala.
- b) Baldintza tekniko berezien plegua.
- c) Kontratazioaren justifikazio-txostena.

Bigarrena.- Adjudikazio-prozedura irekitzeari ekingo zaio eta aipatu agiriak eta erabakia kontratazio-organo honen kontratatzailearen profilean (www.oarsoaldea.eus) argitaratzea aginduko da.

Hirugarrena.- Kontratazioaren ondoriozko gastua onartzen da. 21.559 (HOGEITA BAT MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI) eurokoa izango da, gehi 4.527 (LAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA ZAZPI) euro BEZaren kontzeptupean. Beraz, guztira 26.086 (HOGEITA SEI MILA ETA LAUROGEITA SEI) euro dira.

Oiartzunen, 2019ko otsailaren 18(e)an

Kontratazio-organoa.- Oarsoaldea S.A.ko zuzendari-kudeatzailea



Oarsoaldea
geroa ereiten creando futuro